

GAUR BEROKETA BIHAR GOIZEKO 8ETAN HASIKO DEN MARATOIRAKO

Euskararen 7. maratoiaren atarian gaur bertso kanporaketa bikoteka

Jendea bero dago bihar goizeko 8:00etan abiatuko den euskararen maratoian parte hartzeko eta oraindik berotu ez direnek aukera polita dute gaur arratsalde-iluntzean. 7:30ean hasita tabernaz taberna egingo den kalejira

aukeratuko da zein bikote izango den bihar larunbata gaueko 23:35ean Lasarte-Oriako bikotekako bertso-pinalean. Zortzi bikote arituko dira: bertso eskolako partaideen bikotekideak normalean aritzen ez diren lagunak izango dira.

Normalean bertsoan aritzen ez diren heritarrak ikusteko aukera izango da gaur arratsaldeko 7:30etik aurrera, erdiguneko tabernetan. Aspalditik zuten Bertso Eskolan aritzen direnek, lehenago aritu izan direnekin edo herriko beste bertsozaleekin zerbait antolatzeko gogoia eta maratoian oholztan 20 minutuko tartea eskaini zaizenez, bikotekako txapelketa antolatzea erabaki dute.

Bertso eskolakoek osatu dituzten bikoteetatik bi pasako dira larunbat gaueko finalera. Amaia Agirrek Aitor Atxegarekin kantatuko du. Ane Labakarekin Jon Altuna Txintxarriko kazetaria arituko da. Faboritoen artean daude Unai Muñoa-Josemari Agirretxe eta Iñaki Petxarroman-Pablo Suberbiola bikoteak. Andoni Otamendiren laguna, Kiki Ieregi da, Zigor Iriondo-

rena Mikel Berasategi, Asier Azpiroren bikotekidea Evaristo Pikabea eta bertso eskolan diharduen Villabonako Beñat Iguaranena Jon Iñaki Elexpuru izango da.

7:30ak inguruan Jalgin hasita, Artizar eta Ilargitik bira egingo dute eta ariketa ezberdinak osatu beharko dituzte. Gero Xirimirin alfunduko dute. Bi bikote pasako dira hurrengo eguneko finalera.

Euskararen maratoia, bihar larunbata goizeko 8etan hasi eta igande gauerdia arte luzatuko da. Hasierako ekitaldietan, besteak beste, bertsoak ere izango du tokia. Dantza, txistu, dultzaina eta txalaparta doinuekin batera, inaugurazio ofizialen ondoren, 8ak eta 25 aldera Patxi Etxeberría eta Ane Labakak maratoiarri jarritako bertsoak kantatuko dituzte. •

Lehen aldiz bertsoan

Bertsolari berriak ikusteko aukera izango da gaur arratsaldeko bertso jiran: gehienek ez dute aurkezpenik behar, Joxemari Agirretxe, Juan Luis Ieregi "Kiki", Aitor Atxega musikaria, Jon Altuna "Oxan" Txintxarri ari den kazetaria, Jon Iñaki Elexpuru, Mikel Berasategi, Evaristo Pikabea eta Pablo Suberbiola. Denak aritu dira noiz edo noiz bertsoan, denak dira bertsozale eta horregatik aukeratu dituzte Lasarte-Oriako eskolako bertsolarien bikotekako osatzeko.

Bertso eskolako kideen ondoan ahalik eta ondoan aritzen saiatuko dira normalean jende aurrean aritzen ez diren bertsolari hauek. Batzuk lehen aldiz kantatuko dute, baina oro har erraz animatu dira.

Juan Luis Ieregi, Kiki edo Txispas, ez dakigu txantxetan ala serio ari den, baina "beldurrik gabe" aterako dela esan digu, sekulako gogoia daukala txapelketa iristeko eta kantari hasteko: "aspaldian ari naiz etxean txapelketa prestatzen, puntako bertsolariekin, erri-mak, bukaerak... Kanpanada emateko asmoz aterako naiz".

Beldurrik gabe

Ieregiren emaztea ere txoratu-ta omen dago, bultzada handia ematen dio, beti ere Kikik esan digunez, "beti izan da bertsozalea eta asko laguntzen ari da". Ieregi elektrobertsoak kantatzeko prest dagoela ez da zalantzarik. "Ez daukagu kontrariorik" esan digu lasai bukatzeko.



Aitor Atxega



Juan Luis Ieregi, Kiki.

Aitor Atxega ere asko pentasatu gabe animatu da, euskararen maratoiaren barruko ekitaldi bat izanik, maratoian euskararen alde beti ateratzen delako "dena emateko prest".

Bertsoadiktoa

Gainera bertsolari "amateur" arituko direnez, "erraz" eman du baiezkoa. Bertsozalea beti izan dela aitortu digu,

hainbat saio eta beste ikusitakoa. "Bertsoadiktoa" bere hitzetan, baina oso gutxi aritua. "Behin edo behin koplaren bat edo eskapatu zait" esan digu. Amaia Agirrekin kantatzen du eta finalean izateko arriskuan daudela aipatuta, ezetz dio, berak kantatutakoarengatik ez dela izango. Bera "jolaser" aterako da ondo pasatzera. •

Txintxarri berezia asteartean maratoiko argazkiekin



Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak maratoian parte hartzera gonbidatzen zaituzte! Ondo pasa!



KIOSKO DIGITALA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU



Beti euskararen alde!

Zorion-agurrak



Manuel

Zorionak emazte eta semearen partetik. Berandu baina seguru.



Lander

Zorionak 3 muku handi, familiaren partetik.



Ander

Zorionak txapeldu. Bi muku potolo Leire, Iraia eta familia guztiaren partetik



Txema

Zorionak zure emazte, Joana, Enara, aiton-amoneta eta Maiteren partetik.



Alex

Zorionak familiaren partetik. Muku handi bat.



Garazi

Zorionak zure lehen urtebetetzean amon eta osabaren partez



Silvia

Zorionak. Familia guztiaren partetik.



Mario

Zorionak Clara eta zure aitaxoen partetik.



Maia

Zorionak printzesa. Txokolatzeko bost muku handi.



Amaia

Zorionak txiki, muku handi bat! Ondo pasa! Gurasoak eta Oihana.



Iria

Zorionak sorgin txiki, Maria eta Sararen partetik.



Aroa

Zorionak, 6 muku potolo guraso eta famili guztiaren partetik.

Guardiak

Ostrala, 17

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 18

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 19

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 20

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteartea, 21

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 22

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 23

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia . 943371629
Zerbitzu Sozialak . 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Ikus-entzunezko teknikaria

Euskadiko Filmatagiriako ikus-entzunezko teknikari bat behar da. Honako hau eskatzen da:
- Lizentziatua, Erdi Mailako Teknikaria edo Ikus Entzunezko LH II mailako ikasketa Titulazioa
- Informatika-programetan (Photoshop, Freehand...), Ofimatikan, Interneten, Digitalizazioan ezagueraz itzea eta esperientzia (nahitaezkoa)
- EGA titulua (nahitaezkoa) edo antzeko hizkuntza- eskakizuna. Kontuan hartuko dira beste hizkuntzak, bai ingeleza baita frantsesa ere.
- Lanpostuko perfilarekin zerikusia duen lanetan 3-5 urteko esperien-

tzia baloratuko da. Curriculum Vitae urriaren 31 baino lehen bidali behar da: EUROSUASOR, S.A.-ra Ref.: Filмотeca Vasca-Técnico jarriz Hondarribia Kalea, 11-6 B 20005 DONOSTIA

Biltegi eta ofizinarako langileak

Andoainen biltegi eta ofizinarako langileak behar dira lan ordu osorako. Hitzordua hartzeko telefono zenbaki honetara deitu: 943300870 (Sandra). Goizetgi 9'00etatik 13'00etara eta arratsaldean 15'00etik 19'00etara. Kurrikuluma eta argazkia eman behar dira. Aukeraketa urriaren 21an egingo da.

Somer Jaunaren istorioa

Urriaren 18 larunbata Astigarragako Kultur Etxean Jose Ramon Soroiz aktorea protagonista izanik "Somer Jaunaren istorioa" antzezlan eskainiko da. Arratsaldeko 20:00etan eskainiko da antzezlan eta sarreraren prezioa 4 eurotako da.

Boluntario beharra

Berpiztu taldea hasi berria den ikasturterako boluntario bila ari da. Astero 4 ordu bete beharko ditu interesaturik dagoen pertsonak; bi ordu ekintzak burutzen eta beste 2 kooordinazio bileratan. eskura ezazu informazio gehiago 900 110 111 telefono zenbakian.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.

• Salgai lokal bat Andatza plazan, 2. zk. Etxebizitza egiteko modukoa. 60 metro karratu ditu eta argitsua da, argi naturala du. Tel.: 943 363722, Cecilia Arbizu.

Salerosketak

• Panderoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Salneurria, 60 euro Tel.: 943579565.

• Furgoneta salmentan. VW Eurovan T4 2.5 TDI 88 CV. 2002 urtekoa. 71.000 km. Lo egiteko prestatua: mahaia, ohea, kortinak. 5 plaza. Oso egoera onean. Tel.: 636 468056.

• Koltxoi ortopediko gogorra salgai. 1,20 x 1,90. la berria. Salneurria 90 euro. Tel.: 686 93 27 14

Lan-eskaintzak

• Irakasle bat behar da DBH 2. mailako gazte bati laguntzeko. Tel.: 943 361304/ 943 371425

Lan-eskariak

• Klase partikularrak ematen dituz ingeleza, matematika, euskara, lengua... Tel.: 636 935734.

• Andre gaztea eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko, astelehen, asteazken eta ostiralean goizeko 09:00etatik 12:00etara. Tel.: 661 182178

• Neska bat eskaintzen da lan egingo. Etxeko lanak egiteko, zaha-rrak edo haurrak zaintzeko, orduka, interna edo externa moduan. Tel.: 689 200 659.

Bestelakoak

• Opari bi txakurkume, 2 hilabete-koak. Tel.: 943 363306.

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4 • www.txintxarri.info

Jaiotzak

Eneritz Diaz de Guereño Urkia, urriaren 8an.

Heriotzak

Luis Martin Calvo urriaren 11n, 52 urte zituela.
Felix Diaz de Mendivil Zabala, urriaren 9an 83 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Iragarkilaburrak.com

■ Lasarte-Oriako eskaintza *txintxarri.iragarkilaburrak.com* helbidean

TXINTXARRI

Orain arte etxebizitza saldu, erosi edo alokatzeko informazioa, lana aurkitzeko iragarki gehienak eta bigarren eskuko gauzak saldu edo erosteko aukera ematen zizuten iragarki txikiak gaztelaraz bakarrik aurkitu genitzakeen. Iragarkilaburrak.com euskalduntzeko hutsik zegoen gunere hori betetzeko sortu den azoka handia da. Interneten eta paperezko edizioan aukeri daiteke Euskal Herriko egunkariekin gehigarri moduan. Paperezko edizioan 100.000 ale inguru banatuko dira ostiralero Euskal Herri osoan, hauek Berriarekin, Hitzarekin (Tolosaldeko eta Leitzaldeko, Oarsoaldeko, Urola kostakoa, Goierrikoa, Irutxulokoa, Lea-Artibai eta Mutrikukoa, Busturialdekoa), Barren, Guaixe, Goienkaria eta Txintxarriekin batera. Hiriburuetan ere banaketa bereziak egingo dira.

txintxarri.iragarkilaburrak.com

Internetari dagokionez euskarazko iragarki laburren azoka dugu iragarkilaburrak.com, baina ez hori bakarrik, eskualde bakoitzean bertako eskaera eta eskaintzak ikusi ahal izango dira iragarkilaburrak.com mikroformatuen sistemari esker. Mikroformatu hauek iragarkilaburrak.com-en bertsio txikiak dira eta hauek iragarkilaburrak.com orri nagusiarekin lotuta daude. Web orrialde nagusia



Irudian, urriaren 10ean eginiko aurkezpenean Donostian.

iragarki laburrak.com den arren elkarte desberdinekin sinatutako hitzarmenen ondorioz bakoitzak bere helbide propioak dituzte, Lasarte-Oriako eskaintzak *txintxarri.iragarkilaburrak.com*-en agertuko dira. Web orrialde hauetan beraz herriko eta gaika sailkatuta egongo dira iragarki guztiak. Atalak asko dira: Etxebizitza, motorra, garajeak, lana, irakasuntza, bidaiak eta denetatik pixka bat. Atal bakoitzak azpialtalak ditu eta horien barruan bilatzaile bat dago eskaintza konkretuagoa izan dadin. Adibidez etxea bilatu nahi izanez gero gehienezko prezioa edo nahi ditugun metro karratuak markatu ditzakegu eta ongi

datozkigun horiek besterik ez dira agertuko.

Informazioa sailkatuta dago, gaika edo zonaldeka eta erabiltzaileak eskatzen duen esparruko iragarkiak aterako zaizkio. Eskaintza guztiak ikusteko aukera ere badago denen artean aukeraketa ere egin ahal izateko edo gauza orokorragoak bilatuz gero. Erabiltzaileak behin iragarki laburra erregistratu ondoren, aukera izango du iragarkiak sartu, kendu, argazkiak gehitu eta beste erabiltzaileekin harremanetan jarri daiteke.

Erabiltzailea norbanakoa edo enpresa izan daiteke eta enpresa bakoitzak bere tartea izango du orrialdealdearen ezkerrean bere logotipoarekin

eta bertan klikatuz gero enpresa horren eskaintza guztiak agertuko dira.

Erregistratzeko egin beharrekoa erraza eta azkarra da, izen-abizenak eta posta elektronikoa besterik ez dira sartu behar, ondoren pasahitza jasoko da posta elektronikoa eta ordudunik iragarkiak sartzeko prest egongo zara. Iragarkia sartzeko gestio gunean sartu beharko duzu eta ondoren iragarki mota aukeratu behar da: internet+papera, internet edo moduloa. Interneten iragarki labur guztiak doan izango dira, eta norbanakoen iragarki laburrak paperean, edozer gauza saldu edo alokatzeko jasotzen duen iragarkien kasuan ordaindu egin beharko dira: aste baterako 5 euro, bi asterako 8 eta hiru astetan agertzeko 10 euro. Moduluak ere jarri daitezke baina hauek ordainduta-koak izango dira.

www.iragarkilaburrak.com webgunea ekainean abiarazi baldin bazen ere, guzti honen aurkezpen ofiziala joan den urriaren 10ean egin zen Donostiako Doka antzokian EK-Tren baitan dagoen Bertako Hedabideetako zuzendaria den Iban Arregiren eskutik. Goienkariko zuzendari den Eneko Azkaratek eta Berriako Martxelo Otamendik ere hitz egin zuten eta proiektu hau aurrera ateratzeko elkarlanean aritutako 23 hedabideen ordezkariak ere elkartu ziren. •

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Gipuzkoarrok denok Legutiora

“Erabakitzeke eskubidearen aldeko kontsulta galerazi digute, baina gure eskubidea da eta hori aldarrikatu nahi dugu”, honela hasten da EA eta EAJ-PNVk bidali diguten oharra.

Horregatik eta horretarako Legebiltzarrean aldeko apostua egin zuten alderdiek amonkomunean antolatuta duten ekitaldiaren berri eman nahi dute oharrean bidez.

Hitza hitz lelopean, euskal herritarrei dei egiten diete, Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan batzera.

Subjektu politikoaren definizioa, debekatutako galdera eta galdera horientzako proposatzen diren erantzunak, fisikoki, lurraldean bertan kokatzean datza ekitaldi-ekimena.

Parte hartu nahi duten herritarrek, EUSKAL, HERRIA, BAKEA, BAI, ERABAKIA eta BAI hitzak osatuko dituzte. Honela Gipuzkoarroi ERABAKIA hitza Legutian osatzea dagokigula jakin arazten dute.

Horretarako, Lasarte-Orian beste hainbat tokitan bezela, autobusa antolatuko da goizeko hamaiketan Legutian izateko asmoarekin.

“Euskaldunak eta abertzaleak garen aldetik ezin gara ezer egin gabe geratu, parte hartu behar dugu, hitzak osatu”, dio oharra.

Honetaz gain, gutxi gora behera bi orduko ekitaldia izango dela aurreraten dute, baita egun aldarrikatzailea eta alai izango dela ere.

Handik etortzeko, bakoitzak aukera izango du ordu-bata eta erditan edo arratsaldeko sei eta erditan autobusa hartzeko.

Honela, euskal herritar guztiak animatu nahi dituzte festan parte hartzera. Informazio gehiago nahiez gero edo erreserbak egiteko ondorengo telefono zenbakietara deitu, 656789391 (EAJ-PNV) eta 650394073 (EA).

Sinadura bilketa

Bestalde, Lasarte-Orian hitzarmenaren aldeko sinadura bilketa ere egingo dela jakin arazten dute, baita jasotako sinadurak Europara bidaliko direla ere.

Horretarako, datorren larunbata eta igande eguerdian, Jalgi tabernaren inguruetan, EAJ, EA eta EB-ko ordezkariak mahai batean izango dira sinadurak biltzen. •

Babesa eskaini dio Ezker Abertzaleak Maratoiari

Ezker Abertzaleak bere babesa eskaini nahi dio asteburuan Lasarte-Orian ospatuko den Euskararen 7. maratoiari, horregatik prentsaurrekoa eman zuen asteazkenean.

“Euskararen aldeko edozein ekimenak txalotzekoak dira, aurrekarik direlako etorkizuneari gure hizkuntza egunerokotasun batean erabiltzeko. Azken finean, eguneroko borroka konpromezuak eramango baigaitu Lasarte-Oria euskaldun batetara”, aipatu zuen prentsaurrekoan.

Ezker Abertzalea herri dinamiken alde ere agertu zen, “herritik sortuak garelako eta erabaki politiko-judizial guztien gainetik herriarentzat lana egiten jarraituko dugulako”. Eta lasarteoriar eta euskaltzale diren heinean, Maratoian parte hartuko dutela ere azpimarratu zuen.

Gure herria Euskal Herriak bizi duen egoeraren islada dela aipatu zuen, baita Lasarte-Oriako eraikin publikoetan euskara hutez egun oso batez hitz egitea zaila dela azpimarratu ere.

“Adibide gisara, gure herriko alkatea, hogeitau ondoren ez da bere ahotik euskarazko hitzik atera, eta zinegotzi batzuk inongo konpromezu eta borondaterik erakusten ez dutelako Euskararen Normakuntza bermatzeko”, atxiki zuen.

Honela, salaketarik gabe festa egin ezin dutenez, herritar guztiak gonbidatzen ditu Maratoian parte hartzera eta bereziki Ezker Abertzaleak betekiko dituen turnoetan mobilizatzen.

“Lasarteoriarrok ez ditugu gure preso eta errefuxiatuak



ahaztu. Gorputzez ez bada ere, gurekin batera parte hartuko dute larunbatean arratsaldeko 17:40ean, Okendo plazatik Teresategira egingo dugun martxan beraien presentzia nahitaezkoa delako”,

aipatu zuen.

Eta igandean ere apartheidu eta salbuespen egoera salatuzko, beste irteera bat egingo dute Teresategira Okendo plazatik 18:40ean aterata. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 18

10:30ean, Ostarar-Real Union (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.

12:00etan, Ostarar-Luberri (Emakumezkoen Liga) Michelinen.

15:30ean, Lasarte-Oria taldea-Ostarar (I. Jubenila) Michelinen.

17:15ean, Ostarar-Lasarte-Oria taldea (II. Erregionala) Michelinen.

09:00etan, Luberri-Ostarar (Emakumezkoen KDT F-11) Berion, Donostia.

11:00etan, Lengokoak-Ostarar (Infantil txikiak) Cesar Beniton, Donostia.

12:30ean, Lengokoak-Ostarar (Kadeteen Ohorezko maila) Cesar Benito, Donostian.

Igandea 19

10:30ean, Billabona-Ostarar (Alebinak) Alluralden, Andoain.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 18

18:30ean, Aurrera de Vitoria C.D. -Aldaz H.K. (Euskal Liga) Abetxuko kiroldegian, Gasteiz.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Obelisk-Izarra

10:50ean, Izkiña-Jordi

11:40ean, Morrison-Epel

12:30ean, Oria Txiki-Buenetxea

13:20ean, Mayi-Viña del mar

14:10ean, Ainhoa-Siglo XX

15:00etan, Okela-Katanga

15:50ean, Ilargi-Tragoxka

Igandea 19

10:45ean, Inter EHU-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Mons kiroldegian, Donostia.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Ainhoa-Siglo XX

10:50ean, Biyona-Danena

11:40ean, Lurra XXI-Oria kris-taldegia

FUTBOL 7

Larunbata 18

20:30ean, Arragain Inmobiliaria-Niasa-Corpa (III. Maila) Cesar Beniton, Donostia.

PILOTA

Ostirala 17

19:00etan, Ilunpe-Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Frontoi txikin, Azpeitia.

Larunbata 18

12:00etan, Intza-Usurbil (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.

12:00etan, Intza-Elordi 2 (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.

SASKIBALOA

Larunbata 18

16:00etan, Ainhoa-C. D. Internacional B (Gizonen seniorrak) Kiroldegian.

Lokeko judokek oso maila ona erakutsi dute Paun

■ Aurreko urteetan emaitza bikainak izan dituzte judokek eta denboraldi hau ere halakoa izango dela ematen du

TXINTXARRI

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko judokak ondo ekin diote denboraldi berriari. Aurreko asteburuan Paun, Frantzian, nazioarteko txapelketan parte hartu zuten. Asteburu interesgarria izan zen judoka lasarteoriatarrentzat, orokorrean emaitzak onak izan baitziren.

Arestian esan bezala, LOKEko judoka gazteek, kadeteek Paun jokatu zen judoko nazioarteko txapelketan parte hartu zuten.

Larunbatean, nesken txanda izan zen. Bertan Leire Zubizarretak eta Amaia Curielek borrokatu zuten: "Leirek lau konbate irabazi zituen. Oso judo ona eman zuen eta bakarrik finala galdu zuen, oso ondo egin zuen", dio Gorka Aristegik.

Amaiak, berriz, gora behe-ra gehiago izan zituen, baina hala eta guztiz ere entrenatzailea oso kontentu dago Amaiak egindako lanarekin, "lau borrokaldietatik bi galdu, bat berdindu eta bat irabazi zuen. Baina, oso ondo egin zuen. Zoragarria izan zen Leirek eta Amaiak larunbatean Frantzian eskaini zutena", kontatzen digu LOKEko entrenatzaileak.



Mario eta Esteban izan ziren Paun parte hartu zuten LOKEko judoketako bi.

Mutilak

Igandean mutilen txanda izan zen. Mario Garrido eta Esteban Martinez lasarteoriarek borroka egin zuten emaitza desberdinarekin.

Mariok sei borrokaldietatik lau irabazi eta bi galdu zituen. "Izugarrizko txapelketa egin zuen Mariok. 5.postua lortu zuen txapelketan parte hartu zuten 40 judoken artean", azaltzen du Gorka Aristegik.

Estebanek, berriz, ez zuen oso egun ona eduki, bi borrokaldietatik biak galdu baitzuten. Hala ere, Gorkak kontatu digunez, Estebanen jarrera oso ona izan zen, "baina beti bezala entrenamendu gehiago behar du".

LOKEko judokak azkeneko urteetan oso ondo aritu dira txapelketetan eta aurtengo denboraldian ere orain arteko lehiak kontuan izanik emaitza onak lortuko dituztela dirudi. •

Herriko zenbait txirrindularien irteera Leitzara



Urriaren 4ean egin zen dagoeneko urteroko ohitura bihurtu den Leitzako irteera. Goizean goiz atera ziren Lasarte-Oriatik eta 11:00ak aldera iritsi ziren Leitzara. Irteera osoa txirrindaz egin zuten, euriarekin hasi bazen eguna, gero atertu egin zuen. Bazkal ordurako herrian ziren berriro eta Buruntz-Azpi elkartean bazkaldu zuen 20 pertsonen osatutako taldeak. •

Pili Bodegas eta Andoni Illarramendi lehenengo postuetan

Igandean Hiru Hondartzetako Krosa ospatu zen Donostian. Aurtengoa 19. edizioa izan da eta inoiz baino parte hartzaile gehiago izan dira frogan. Hai-zeak lasterketa oztopatu zuen baina Pilik eta Andonik marka ona egin zuten.

Lasarteoriatar gutxi

Korrikalarien artean Lasarte-Oriako batzuku egon ziren. Mutilen artean helmugara iritsi zen lehena Andoni Illarramendi izan zen, 10. postua lortu zuen sailkapen orokorrean 00.33.55eko markarekin. Pili Bodegas nesken arteko lehenengo lasarteoriarrak

00.39.55eko marka egin eta nesken mailan 4. iritsi zen helmugara.

Herriar gehiagok ere egin zuten korrika Donostiako kro-sean, hala nola, Juanan Centeno, Rafa Ruiz, Toño Gil, Javier Marcos Perez, Mikel Martija, Aitor Hernando, Asier Gorostegi, Ivan Manzano, Peio Fadrique, Fran Ariztimuño, Juan Antonio Valdivia, Raul Barrera, Miguel Angel Martin, Jose Gonzalez, Fran Puertas edo Juan Mari Sarobek gizonen mailan, eta nesken kasuan, Eva Olazagoitia, Esti-txu Sukuntza edo Bego Arrokerok beste batzuen artean. •

Egunero

Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioko materiala ikusgai Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 17

Bertso-saioa

BERTSO PINALA, Euskararen Maratoian, larunbat gauean ospatuko den finalerako kanporaketa. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da saioa Jalgi kafe-antzokian, eta erdiguneko tabernetan jarraituko du.

Astelehena, 20

Ipuin-kontalaria

PELLO AÑORGAK Ipuin zoragarriak kontatuko ditu. Saioa 4 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ



Jam sesioa Jalgin, maratoiarene aurretik girotzen hasteko

DINBI DANBA talde Donostiarra eta Anna Valentina abeslaria izango dira gonbidatuak Jam sesiora. Bertan jazz-a eta blues-a jotzeko eta entzuteko aukera egongo da. Abesti klasiko ezagunak interpretatuko dituzte jazz eta blues inguruan, gero hauekin inprobisatzeko.

OSTIRALA 17, 22:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Asteazkena, 22

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.

EUSKARAZ

Osteguna, 23

Zinea

CARAMEL filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Jatorrizko bertsioan eta gaztelarako azpiztituluekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan. Sarrera 4 euro.



Larunbata, 25

Zartzuela

LA CORTE DEL FARAÓN zartzuela eskainiko du Sasibill talde lirikoak. Sarrera 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan, GAZTELANIAZ

EUSKARAREN 7. MARATOIA

Urriaren 18 eta 19an

Ondo pasa!

Teresategira joateko txandak betegabe daude oraindik!

Animatu eta hartu parte!

Izena emateko edo informazioa Ttakunen (Geltoki kalea 4, 943 371448) edo

www.euskararenmaratoia.com



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Torrecillas de la Tiesakoen bazkaria

Urriaren 26an izango da eguerdiko 14:00etan Txixardin Beltza jatetxean. Izena eman nahi duenak, urriaren 20a baino lehen egin behar du diruaren ingresoa (44 euro, 2101 0121 14 0126500891 kontuan). Zalan-tzarik edo izanez gero, deitu telefono hauetara: 943 365463, Jose Piquelo edo 943 357478, Emilio Felipe.

1962an jaiotako enfermeria

1962. urtean jaiotako lasarte-arentzat afari bat antolatuko dugu Goiengo azaroaren 14rako. Interesa dutenek honako telefono hauetara deitu dezakezue 19:00etatik aurrera: Tel.: 672 138855 (Marian) / 685 775968 (Idoia) / 659 950363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31. Anima zaitetz!

Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkarteak

eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru euro-tako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran plazan) erosi ahal izango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartek, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkartetako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Urriaren 20an Officeko ikastaroa emango da langabeteentzat. Ikastaroa doan izango da. Informazioa Eskolan bertan izango duzue.

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak

Pintura eta marrazketa ikastaroak hasi dira eta leku dago oraindik. Izena emateko Kultur Etxeko 2. soilairudan astelehena, asteazkena eta ostirala 6atik 7tara eta larunbata goizetan 9,30etatik 11,30etara

Euskal Inauterietako dantza taldea

Euskal Inauterietako dantza taldea entsaioekin hasiko da urriaren 14tik aurrera, asteartea eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Dantza gustokoa duenak edo dantza berriak ikasi nahi dituenak azaldu dadila Landaberri BHI eraikerina (REM ohia).

Krosseko inskripzioa EHNArekin

Bai Euskal Herriaren taldeak deialdia luzatzen du Loko kross herrikoian inskripzioak EHNArekin egiteko, inskripzio orrietan aukera hori egongo da.

Biyak Bat elkartearen eskerrak

Lasarte-Oriako Biyak Bat Zaharren etxeak eskerrak eman nahi dizkie Adinduen Omenaldia, Urrezko Ezteiak eta egoitzaren 30. Urteurrenean parte hartu eta lagundu duten elkarte eta pertsonen: Amalur trikitilari eskola eta Jon Lasa, Biyak Bat elkarteko abesbatza, Alboka abesbatza, Zero Sette akordeo orkestra, Lasarte-Oriako Udala, Caja Rural de Navarra, La Caixa, Kutxa, Caja Laboral eta Zaharren etxeko bolondresak.

Akats zuzenketa

Aurreko asteko Txintxarrin, 726. zenbakian, Michelingo

Enpresa Batzordeak deituta 65 orduen direktiba europarraren aurka kontzentrazioa egin zutela kaleratu genuen. Albiste horretan akats bat zegoen, sindikatuen izenen artean ELA falta zen. Beraz, ohar honen bidez, zuzendu nahi dugu eginiko akatsa.

Eguberrietako loteria

Lasarte-ari elkartek, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erosteko asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurren abenduaren 7a arte, hau barne.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Iñigo Carrasco / Nafarroa Oinez'08ko antolatzailea

‘Erronka hau alaitasun eta ilusiozko maratoi bihurtu dugu’

‘Atera ezazu mihia’ lelopean, Jaso ikastolak Nafarroa Oinezeko jaialdia eskainiko du igandean, urriaren 19an. Antolatzaileek ‘jai kultural, herrikoi eta propioa’ bezala aurkeztu zuten asteazkenean. Arga ibaiaren ertzetik igarotzen da ibilbidea, zazpi kilometro, sei gune eta hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera duzue, Lasarte-Oriako euskararen maratokit Arga ibaiaren inguruan mihia askatzera joateko asmoa duzenok.

Urte bat baino gehiago hasi zirela Jaso Ikastolan 28. Nafarroa Oinez antolatzen. Ikastolako langileak, aita-amak, ikasle ohiak eta Iruñako hamaika lagun buru-belarri ari dira lanean igandeko festa ondo atera dadin. Tartean, Iñigo Carrasco lasarteoriatarra dabil: pertsonaleko batzarreko arduradun moduan aritzeaz gain, Nafarroa Oinez'08ko bideo-klipa eta iragarkia egin eta zuzendu ditu. Berarekin izan dugun solasaldian, igandeko jaialdiaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Igandean Iruñara doanek zerekin egingo du topo?

Izugarritzko festarekin, goizeko 10:30etatik 19:00ak arte, eten gabe. Ibilbidea oso atsegina da, ibai ertzetan dauden zelai eta jolaslekuetatik igarotzen baita, guztira zazpi kilometro eta sei gune. Ikastolako mugatik at atera nahi izan dugu aurtengo Nafarroa-Oinez. Jaso ikastolara Iruñako auzo guztietako haurrak joaten dira eta auzo hauetako izaera desberdinak kontutan hartu ditugu. Horregatik, 3.gunea, kultura desberdinetako ekitaldiak jaso ditugu: son kubatarra, capoeira, korskiko eta zelta musika, txalaparta, mariatxiak...

Iganderako dena prest?

Guneak prest daude, txosnak betetzeko besterik ez da falta iganderako. Hiru aste lehenago hasi ginen muntaiarekin eta Nafarroa Oinez ospatu eta beste aste bete behar dugu dena jasotzeko. Prestaketa eta jasotze lanetan mila bolondres baino gehiago arituko dira.

Deskribatu igandeko jaialdia zenbakietan.

100.000 pertsona aurrikusten ditugu, horretarako 1.500 pertsona inguru egongo gara lanean. Alde horretatik zortea daukagu ikastola handia delako, ia 700 haur daude, 450 familia gutxi gora behera eta denak lanerako prest. 7 kilometrotako ibilbidea, 6 gune, 200 kamara, 50.000 ogi otartekoak egiteko, 60.000 edalontzi birziklatu eta gune bakoitzean 60 metrotako txosna bat eta trailler frigorifiko bat.

Noiz hasi zineten jaialdi hau prestatzen?

Testigua Bianan hartu aurretik hasi ginen lanean. Aurreko ikasturte amaieran batzorde desberdinak osatzen hasi ginen 19ko jaia antolatzeko. Batzordeetan bakarrik 100 pertsona baino gehiago aritu gara lanean: ikastolako ikasle ohiak, langileak, aita, amak... Urte osoan zehar ekitaldi desber-



dinak antolatu ditugu: kulturalak, sozialak, kirolaren ingurukoak... Tartean, Ot Pi, Karlos Argiñano, Koldo Rodero, Cesar Kruchaga, Violadores del verso eta abar luze bat.

Egitarautik zer bereziko zenuke?

Egitaraua 70 ekitaldiekin osatu dugu. Iruñaren berezitasuna kultura aniztasuna da eta egitarauan islatu nahi izan dugu. Horregatik, aurten

berrikuntza moduan, herrialde desberdinetako taldeak ekartzea erabaki dugu, nahiz eta hizkuntza berbera ez hitz egin, kulturaren aldarrikapena konpartitzen dugu beraiekin. Hirugarren guneari Jazz Txokoa deitu diogu eta bertan herrialde desberdinetako musika entzun ahal izango dute bertaraten direnek (bolibiarra, afrikarra, kubatarra...). Laugarren guneak, Hip-hoparen txokoak, egungo gizartearen izaera moder-

noa, kulturaren eta transgresorea jasotzen du.

Bestetik, Nafarroa Oinez beti egon diren talde eta ekitaldiak mantendu ditugu: Betizu, Oskorri, Gozategi, Tapia eta Leturia, puzgarriak, rokodromoa, pailazoak, tailetrrak, taloak, artzain txakurren eta ehiza-hegaztien erakustaldia, herri kirolak...

Bideo-Klipa eta iragarkia egin dituzu. Nola izan da?

Agentzi bati enkargatzea

horrelako lan bat diru asko da eta nik egiten dakidanez, niri proposatu zidaten eta gure artean egin dugu. Apirilean eta maiatzean grabatu eta ekainean aurkeztu genuen. Dena gure denbora librean grabaketa eta muntaiaren egin dugu. Bideo-kliparen protagonistak Saloa, nire alaba eta Jon ikastolako lagun bat dira, hauek eskura nituelako aukeratu genituen.

Zer kontatu nahi izan duzu?

Iruñako kultur anitza, tradizioa eta modernitatea jaso eta uztartu nahi izan ditugu. Azken finean, euskara leku guztietara iritsi behar da. Alaitasuna ere islatu nahi izan dugu, haurren bat-bapatokotasuna. Horregatik, oso plano gutxi zeuden prestatuta. Idei baten gainean lana egin dut, baina inprobisaketak askorekin.

Zer sentitzen da Oinez-baino bi egun lehenago?

Urte hau oso polita eta berezia izan da Jaso Ikastolarentzat. Erronka hau alaitasun eta ilusiozko maratoi bihurtu dugu, horregatik harro gaude lortu dugunarekin. Eguna noiz iritsiko zain gaude, egin dugun lanaren emaitza ikusteko. Baina, era berean, aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen hainbeste disfrutatu dugunez, bukatzeaz dagoela jakiteak pena ematen digu.

Zein da iganderako egin duten aurrikuspena?

Eguraldiak lagunduko digu. Aurrikuspenetan %20a eurria eman dute, baina hori Iruñean, eguraldi ona da, zeru urdina eta lainoren bat eguzkitik babesteko. Perfekto.

Bada ezpada ere arrautzak eramane al dituzue Clariseta-ra?

Hori bera esan diogu Isabel Elizalde koordinatzaileari. Ezta pentsatu ere! esan digu. Dirudienez, behin bakarrik eramane dizkiete arrautzak, Nafarroa Oinez, Lumbierren ospatu zenean eta egin zuten euriarengatik bertan behera utzi behar izan zuten. •

“ Iruñan Izugarritzko festa egongo da igandean, goizeko 10:30etik 19:00ak bitartean, 70 ekitaldi baino gehiago, eten gabe

“ Leku desberdinetako taldeak ekarri ditugu, hizkuntza berbera ez hitz egin arren, kulturaren aldarrikapena konpartitzen dugu

“ Nafarroa Oinezeko antolakuntza alaitasun eta ilusiozko maratoi bihurtu dugu, horregatik harro gaude lortu dugunarekin